

- **Entzutekuak:** Ekaitz Uzin, argazki zaharren artxiboa osatzen
- **Zer berri:** Herriko produktuak bultzatzeko azoka, maiatzaren 5ean

soraluzeko  
hamabostekaria **263.** alea  
2012ko apirilaren 27an

# PIL-lean



**Emoixok Lasku!**  
**Plaentxia hirekin**



# Ignacio Zuloaga Institutua



**EIBAR**

## Aurrematrikula Maiatzaren 2tik 11ra

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



**Elkartrukeak**



**Alemania - Ingalaterra**



Jardifeta 3 Eibar · Tel.: 943208349 · Fax: 943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



ELGOIBARKO INSTITUTUA

**Elgoibar Arreiturre BHI**

Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 013431aa@hezkuntza.net

www.elgoibarbhi.net

### BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

## ELGOIBAR ARREITURRE BHI 2012-2013 IKASTURTEA



**AURREMATRIKULAZIO DATAK: maiatzaren 2tik 11ra.**





IRATI TREBIÑO



IÑIGO URIBETXEBERRIA

## KAKAK JANGO GAITU

Iñigo, kakak jango gaituela!

Ez da gutun bat hasteko modurik txukunena, baina egia borobila, ezta? Zein kaka motaz ari naizen galde-tuko diozu zure buruari, izan ere asko dira leporaino igotzen hasiak zaizkigunak, baina oraingoan, benetakoaz ari naiz, gizarte honen ezaugarri berezko eta nagusienaz: zaborraz. Eztabaida luze eta sakona merezi duen gaia da, baina bada-kizu, ni kokoteraino naukate. Kokoteraino herriko edozein arazo hauteskunde-dema bihurtzeaz. Alderdia da axola duena, besteak hau esan badu nireak kontrakoa esan beharko du eta kitto, eta bitartean kakak jango gaitu...

Zaborraren kontuarekin etxez-etxe banatu zuten eskuorriak "iraindu" egin ninduen, nire amorrua adierazteko hitz xuabetxo bat aurkitzearen, ze orain arte hain fin ibili ostean, alderdi politiko batek jaurtitako lau argudio merke eta interesaturerengatik ez dugu gure ataritxoa zikinduko, ezta? Bai, atez-ateko zabor bilketa kritikatzan zuen horretaz ari naiz. Mesedez! Minutu erdian edonork desmuntatu zitzakeen 10 puntuak gaia gehiegi ezagutu gabe! Ez da tontakeria. Sortzen ditugun zabor pilak beldurtzeko modukoak dira eta irtenbide bakarra dago, zabor gutxiago sortzea. Atez-atekoak ez du zaborraren arazoa konponduko, horrekin amets egiten duenik bada ahaztu dezala, bilketa sistema bat besterik ez da, baina biltzeko askoz modu eraginkorragoa bada, zergatik itxi atea? Norbere alderdiak proposatu ez duelako? Proposamen hobek badira orain da botatzeko momentua eta goazen benetan eztabaidatzera.

Eta guk eztabaidan jarraitzen dugun bitartean betikoek kakarekin ere negozioa egingo dute. Badakizu Bizkaiko Zabalgarbi erraustegiko jabe nagusia FCC, Koplowitz-tarren enpresa dela? Zalantzarik gabe, eta alde guztietatik, kakak jango gaitu!

Goguan hartzeko

**Kaka zuretzako eta kaka neretzako, hauxe da gauza ederra mundu guztiantzako. Kanta herrikoia (Oskorri)**

Kaixo kaixo,

Oskorriren kantuarekin hasteko asmoa nuen nere erretolika, baina aurreratu zaizkit lankidiak. Guztiz ados nago gai denetan partidismoak kutxatzen duela dena. Eta gainera badirudi edozein auzitan (kasu honetan zaborra) alde edo kontra baldin

bazaude, partidu batekin edo bestearekin lotzen zaituela jendeak. Eta ez du zergatik horrela izan behar.

Uztarría aldizkarian irakurri berri dut Azpeititik at (Usurbil, Hernani, Antzuola, etab.) bizi diren zenbait azpeitiarren atez atekoarekiko esperientziak. Adin guztietakoak ziren berauek, hasi 35 urte ingurutik gazteena eta 65 ingurarteko gizon emakumeak. Hasieran gauza berria zela eta urduritasuna izan omen zuten.

Lan pixkat aldaketa berrira ohitzeak, hanka sartzak barne. Baina denborakin denak oso gustora ziren. Uste baino garbiagoa omen da, usainarena ere mito bezala jartzen zuten, baldin eta gauzak ongi egin ezker. Oso gustora eta pozik geratu nintzen irakurritakoarekin.

Inposaketa hitza entzuten dahan hemenka atez atekoaren kontrako dosi bezala. Bai, inposaketa da. Azken urteetako gehiegikeri guztiengatik egin beharreko inposaketa bat. Nola kudeatu bizitza osoan sortu dugun zabor pila? Zenbat tona plastiko, pardel, lata (bai, birzikla daiteke, baldin eta beste zaborretik bereizten bada), etab. luuuuze bota ditugu?

Atez atekoa ez da perfektua izango. Zero zabor ez da inoiz iritsiko bere izenari erreferentzia egitera, baina jende talde batek (diruari edo partidu politiko bati men egin

beharrean) ingurugiroari eta gure seme-alabei lagako diegun munduarekin hartu duten arduragatik niretzat eredu izango dira.

Serio hartzen ez badugu gai hau, naturak inposaketa digu zaborrarekiko ohiturak aldatzea.

“

**“Irtenbide bakarra dago, zabor gutxiago sortzea”**

Irati Trebiño

**“Naturak inposaketa digu zaborrarekiko ohiturak aldatzea”**

Iñigo Uribetxeberría

”



## GUTUNAK

**Eskerrak  
emonaz**

**E**gun ederra pasatu genduan martxuan 24an! Le-lengo Kale dantza Eguna izan zan ospatutakua baina urtero errepikatzea nahiko genduke, udaberri-xan etorrerriakin batera. Antolatzaileak, Urrats Dantza taldeak eta Soraluzeke Txistulariak, eskerrik beruena emotia nahi detsuegu, Kale-dantza Egunian parte hartu zenduten guztiori, bai musikan,

bai dantzan, baita kalia animatzen be egon zinatzen danoi. Berezi-ki Francisca eta Ramoni, bihotzez eta gogoz eskainitako prestutasun eta laguntza guztia-gatik. Bukatzeko, espero dogu Kale dantza egunak gero eta gende gehixago batzia, jotera zein dantzara, herri guztixandako jai bat izan dein. Laster arte!

**Kale dantza eguneko antolatzaileak**

**Etxaburueta  
kaleko istripua**

**G**utun honen bitartez hilaren 11n Etxaburueta kalean jasandako ezbeharra salatu nahi dut. Goizeko 11:00ak inguru zirela, Etxaburueta kaleko espaloitik kotxera bidean oinez nindoala, espaloiarene erdian zegoen trafikoko seinale batekin gogor jo nuen buruan. Zorabiatu-rik, brigadako langileak niri begira geldirik barrezka hasi zirela ikusi eta amorruren amorruez trafikoko seinaleak

moztu egin nituen. Lerro hauen bitartez salatu nahi dut brigadako lana dela trafikoko seinaleak bere lekuan jartzea eta ez beraien erruagatik herritarrek jasaten ditugun ezbeharrei barre egitea. Eskatzen dut baita trafikoko seinaleak bere lekuan jar daitezela, inongo ezbeharrik sortu ezin dezaketen kokagunean.

**Jose Fernando Cid**

 **pil-pilean**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkar-teak ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZEKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Aitor Morillo  
Gora Soralezeko Alpeak!!!

**E**zer kontatu aurretik egoeraren deskribapen azkarra:

Lekua: Facebook (bai, ni ere erabiltzaile aktiboa naiz).

Eztabaidagai: Mendi paraje baten argazkia.

Nik facebooken jarritako argazki horren inguruan soralezetar batek idatzitakoa: "Ze paraje polita. Disfrutatu topera ingurueta!". Honera arte dena normala. Alpe ingurueta gaudenez, soralezetar honek alpeetako argazki bat zela pentsatu zuen. Egia esanda izan liteke. Hala ere argazki hori bere herri maitetik oso gertu aterata dago, Txantxabolleta ingurutik hain zuzen ere. Aizkorri, Udalaiz, Anboto... ageri dira bertan elur geruza polit batekin.

Eta kontatu dudan hau dena zertarako, ba konturatzeko ez dela urruti joan behar paraje politez gozatzeko eta herrian bertan baditugula gure alpeak. Beraz, gora Soralezeko Alpeak!

Eta bide batez mila esker urtero Alpe txiki horietaz gozatzeko parada ematen diguten pertsoneri. Giro paregabeen herriko bazter ezkutuak ezagutzeko aukera luzatzen digutenei. Gure mendiez harro sentiarazten gaituztenei eta Soralezeko inguruak Euskal Herrian ezagun egin daitezen lanean dabiltzane. Mila esker Marraskilo Toureko antolatzaile guztiei!

# ((ENTZUTEKUAK))

## Ekaitz Uzinekin herriko argazki zaharren artxiboa arakatzeko

Kontrargi argazki kolektiboak afizios hasitako lanari jarraipena emateko kontratatu zuten Ekaitz Uzin gaztea Udalean. Bera da urtarriletik herriko argazki sorta baten sailkapenaz arduratzen dena, artxiboa osatzeko lehen pausoetan. Urteen poderioz herriak izan duen aldaketa ikusteak harrizten du gehien. Lan zorrotza bada ere, gustura dihardu.

### Nundik sortu zan artxibua egitteko ideia?

Nere kasuan udalak bultzatuta izan da. Argazki zaharren sailkapena egitteko dirulaguntza jaso eta Kontrargikuekin jarri ziran harremanetan, borondatezko lan moduan eta afizinuak bultzatuta urtietan egin daben lana izan dalako. Kolektibokokide gaztiena ni naiz, langabetu bakarra eta lana neregain hartzia erabaki neban.

### Helburu jakinik badaukazue?

Argazki artxibo osatuena eta zehatzena garatzia da asmua, argazkixak ondo sailkatuta eta erabiltzeko erraza izango dana. Aurrerago herrira zabaldu eta kontsulta datu-base moduan eskaintzeko asmua be badago baina oindiok ez dogu ezer zehaztu.

### Herritarrek badauke laguntzeko modurik?

Argazkixak informazioz osatzeko laguntza eskatu izan dogu. Valerok adibidez arratsaldeko poteua erabiltzen zeban horretarako. Garrantzitsua da herritarren memoria fotografikua argazkixak osatzeko, eta bai, laguntzia nahi dabenak udaletxian galde deixela.



Argazkien negatiboak mozten.

### Daguaneko zenbat argazki sailkatu ditzuzue?

Angel Bolunburu, Eli Lakuesta eta udaletxeko artxibuan artian 2.000 argazkitik gora sailkatuko ditzugu. Momentuz baina, datu-basian 900 argazki zahar sartzia lortu dogu.

### Zein urtekua da topatu dozu zaharrena?

1915. urtekua. Udaletxeko artxibuan zeguan. Futbol talde bati etaratakua da.

### Eta gehixen harritu zaittuan?

Antzina oso ohikua zan hildakua erretratatzia eta Birilbiltxok bazeukan ume bati bere hilobian etaratakua bat, nahiko zirraragarria... Bestalde herrian arkitektonikoki emon diran aldaketak ikustia berezixa da.

### Zelakua zan sasoi bateko Soraluze?

Askoz be etxe gitxiago zeguaz eta herrixa frontoian eta Gabolats kaliaz bukatzen zan. Eliza atzia ortuz josita zeguan eta Txurruken auzua ez zan existitzen. Kuriosua!

*"Argazki artxibo osatuena eta zehatzena garatzia da asmua"*

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxe eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Herrira mugimenduak Etxeberria 23 urtez preso dutela salatu du

Aulki hutsak sinbolo hartuta eta poesia eta musikaren laguntzarekin martxoaren 31n aurkeztu zuten Herrira mugimendua. Ehunetik gora herritar eta herriko hainbat elkarte eta alderdi politikotako ordezkariak babestu zuten aurkezpena. Soraluzeko Herrira-k, preso eta iheslarien eskubideen alde egiteko "herritarren mugimendu zabal" osatu eta ibilbide oparo be-

zain motza egiteko bokazioa" duela adierazi zuen.

## Parot doktrina salatzen parodia

"Parot doktrina" edo 197/2006 doktrina aplikatu eta 2006an kallean egon behar zuen arren, apirilean 23 urte bete ditu Pedro Jose Etxeberriak espetxean. Joan den martxoaren 29an Auzitegi Konstituzionalak 19 euskal preso politikoren helegitea atzera bota zuen, tartean Etxeberria eta Lurdes Txurrukarena. Erabaki hau salatzea izan du ardatz Herrira mugimenduak eta epaimahai bat imitatuz aipatutako doktrinaren deuseztatzea antzestu zuten. Abokatu baten bitartez legedia zein den eta presoek nola eragiten dien ere aztertu zuten saio aretoan antolatutako hitzaldian. Gaurbertan 19:30ean prentsurrekoa eskainiko dute eta ondoren azken barixakuko mobilizaziora batuko dira. Maiatzean herriko plaza betetzea izango dute helburu "Plazara" ekimenaren bitartez.



Prentsurrekoa eskainiko dute gaur arratsaldean.

## Artolazabal Deparkeleko lehendakari

Urtebetez dihardu Jesus Artolazabalek Debabarrenako Parkinson Elkartearen lehendakari lanak betetzen. Apirilaren 11 parkinsona mundu mailan gogoratze-ko eguna izan da, elkartekoek Eibarren duten egoitzara gonbidatu nahi dituzte Parkinsona diagnostikatu dieten soraluzetar denak, laguntza psikologikoa talde terapia eskaintzeko.



## Autobus murrizketa Eibarrerako noranzkoan

Hemendik aurrera Eibar eta Soraluze arteko autobusetan, astebarruan, konexio bat gutxiago egongo da: Eibartik Soraluzera doan 12.05eko autobusa eta Eibarrerako 12.20koa desagertu egingo dira.

## Haurreskolako matrikula maiatzean

Soraluzeko haurreskolak 0-2 urte bitarteko haurren matrikulazio epea zabalduko du 2012-2013 ikasturtean seme-alabak bertan eskolaratu nahi dituzten familientzako. Eskera egiteko epea maiatzaren 2tik 11ra artekoa da eta izenematea haurreskolan bertan egin behar da. Edozein argibidetarako 943 75 13 32 telefonora dei daiteke.

## Atxuri eta Errabal auzokoekin bilera

Auzoak duten iritzia eta eskaerak zeintzuk diren jakiteko asmoz Soraluzeko Udala maiatzaren 3an bilduko da Atxuri eta Errabal auzoko bizilagunekin. Bileraren arratsaldeko 19:00etan izango da udaletxeko saio aretoan.

## Geologia zaleen bisita

Urtero lez Paue (Frantzia) hiritik etorritako geologia zaleak San Andre-sera bidean dauden kuxin-labak ikustera etorri dira. Toki oso gutxitan topatu daitekeen jatorri bolkanikodun harri hau ugaria da Karakate mendia magalean.




**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

**etxera**



**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

## Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

Santiago-Santa Ana jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatu du udaleko kultura batzordeak. Lanak maiatzaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira udaletxeko bulegoan 33x27ko neurrian. Gai artistikoa lehiakidearen esku uzten bada ere, karteletan "2012 SORALUZeko JAIK" jarri behar da derrigorrez eta ez dira sexu-diskriminazioa adieraz dezaketen irudiak onartuko. Sari bakarra banatuko da 300 eurokoa. Informazio gehiago: [P.com](http://p.com)

## Bular minbiziaz jarduteko hitzaldia

KATXALIN, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak bular minbiziaren arrazoiari azterketaz, tratamenduaz eta prebentzioaz jarduteko hitzaldia antolatu du maiatzaren 8rako, martitzena, arratsaldeko 18:00etan Zinean. Donostiako Onkologia institutuko doktorea den Arrate Plazaolak gidatuko du hizketaldia eta bereziki 50 eta 65 urte arteko emakumei zuzendu nahi zaizkie.

## "Borrokari lotu" maiatzaren leko aldarria

Langileen Eguna ospatu eta indarrak batzeko LAB sindikatuak eskualde mailako mobilizazioa antolatu du Eibarren. 12:00etan manifestazioa abiaraziko da Untzaga plazatik eta jarraian herri bazkaria antolatu dute bertaratzen direnentzat. Tiketak Arranon daude salgai, 15 eurotan langileentzat eta 8 eurotan langabe eta ikasleentzat.



# "Errenta aitorpena, aukeran euskaraz" kanpaina aurkeztu dute

Iazko proposamenari heldu eta laurten ere Pil-pilean Euskara Elkarteak eta udalak errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dute martxan. Joan den urtean herritarren %14,4ak egin zuen aitorpena euskaraz eta aurtengo asmoa ehuneko hori handitzea da. Modu erreza eta sinplea dela aipatu dute arduradunek; tramitazioak egiterakoan aitorpena euskaraz egin nahi dela besterik ez

da esan behar. Informazio gehiago 943 75 30 43 telefonoan edo [P.com](http://p.com)



Tramitazioak euskaraz egiteko eskatu dute.

## Bertako produktua sustatzeko azoka

Maiatzaren 5ean lehenengo "Zapatuetako Azoka" egingo da kontzejupean goizeko 9.00etatik aurrera. Soraluzeko baserriko produktuen azoka izango da, bertako merkatua indartu, salmenta zuzena bultzatu eta tokian-tokikoa kontsumitzeko helburuarekin antolatu dute. Lehenengo azoka honek lau zapabost postu izango ditu eta besteak beste, gaztaia, ogia eta barazkiak salduko dituzte herriko ekoizleek.



## Greba egunean hainbat zauritu izan ziren Corte Inglesen

Greba eguna lasai igaro bazen ere, arratsaldean Eibarko El Corte Ingles merkatalgunean Ertzainekin izandako liskarretan hainbat herritar zaurituak izan ziren. Greba eguna zela eta merkatalgunea itxita egon beharke lukeela azaltzera gerturatu zirenean, bertako segurtasun agenteak oldartu zitzaizkiela azaldu dute. Minutu gutxira Ertzainak agertu eta berrin kolpeen ondorioz ubeldura "larriak" eragin zizkietela salatu dute bertaratutakoek.

## Bizi eredu berriak lantzen

Greba eguneko aldarriari jarraipena eman asmoz, hainbat herritarrek osatutako batzar irekia loratu da herrian. Ekonomiaren, ingurunearen eta balioen krisiari ez ezik, "lan erreformei, langabeziari, etxe kaleratzei, arrazismoari, laguntza sozialen murrizketei eta zerga eta prezioen igoerei" auto-antolaketa bidez erantzutea da asmo nagusia. Hurrengo batzarra maiatzaren 4an egingo dute arratsaldeko 18:00etan zinean.




**Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal**

Gabolatx, 5-B Beheo  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: [jibarza@infosegocio.com](mailto:jibarza@infosegocio.com)

TEL: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikarra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10



Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2      T. 943 75 16 13

# Soraluce kooperatiba, arrakasta baten istorioa

Enpresa eredu berri baten lehen doinuak entzuten hasi ziren 60 hamarkadan Deba arroan. Enrique Larrañaga abadea Soraluzera heldu zenean, Jose Luis Arizmendiarrera erlijiosoaren (kooperatibismoaren sustatzaile nagusia) ideiak ekarri zituen berekin. Herriko gazteak elkartu eta lehen eztabaidak hasi ziren, ezkutuan, noski.

Frankismoa bete-betean, langileen baldintzak oso eskasak ziren eta sistema justuago bat eraikitzeko ilusioa zegoen gazteen artean. 1962ko apirilean. Duela 50 urte 52 bazkide elkartu eta 30.000 ptako ekarpena eginez “Talleres Soraluce Sociedad Cooperativa Industrial” eratu zuten.

Osin txu auzoan topatu zuten lekurik aproposena. Makina erreminta ekoitziko zuten. Lehen produktua, zulatzeko makina erradiala. Zaharkituta geratu zenean pieza modernoagoak egiten hasi ziren. 1971 bitartean hainbat ardatzeko ziklo hidraulikoko modeloak produzitu zituzten. Bestelako modeloak ekoitziz, 80. hamarkadara bitartean, urte oso

onak izan ziren enpresarentzat. Ordurako nazioartean pisua irabazten hasiak ziren.

## Kooperatiben elkartzea

1983rako Soraluce, Danobat, Txurtxil eta Goiti enpresak DEBAKOren barruan zeuden. Gerora, Mondragon korporazioa izango zena eta gaur egun DanobatGroup dena.

Krisialdian aurrera eginez eta akordio baliotsuen bitartez, Soralucek arrakasta handia du fresatzeko eta mandrinatzeko makinekin estatuan eta nazioartean. Azken 12 urtetan 118 milioi euro fakturatu dituzte eta 50 urte eta gero, etorkizun oparoa aurreikusten dute.

Jesus Artolazabal eta Victor Iriondok (beheko irudian) ondo gogoan dituzte kontu hauek. Lelena delianeante hasi zen biharrian eta kooperatibako zuzendari ere izan zen. Artolazabal barriz, zuzendari komertzial Europa osoan zehar ibili zen. Biak bazkide-sortzaile dira.

## Oin 50 urte zela sortzen da kooperatiba bat eratzeko ideia?

**J. Artolazabal:** Enrique Larrañaga apaiza Soraluzera etorri zanian hasi zan dana. Kooperatibismoa zabaltzeko zaban Jose Luis Arizmendiarrera abadiakin kontaktua zeukan.

**V. Iriondo:** Honek abade honek, gaztienak hartu eta talde bat gertatu eban. Hamengo justizia sozialan egarri ginan, hortxe jarraitzen eban frankismoak eta jauntxun enpresa kapitalisten eredu zeguan bakarrikan.

**J.:** Nahi bat agertu zan talde haretan, “guk be aber egitten dogun zer edo zer”. Arrasatera juaten zan eta hango notiziak ekartzen zittuan.

**V.:** Baina egoeria oso diferentia zan. Lanpostua danok genkan, baina represiño haundixa zeguan eta jornalak be eskasak ziran Plazentzian. Elgoibarren edo Eibarren dobla irabazten zan.

## Hasierako batzarrak, ezkutuan egin bihar...

**V.:** Lelengo bi batzar egon ziran Eibarren, junta rektoria izan zana. Klandestinidadian egitten genduzen.

**J.:** Hirugarrena izan zan trankilena, 1962ko apirilaren 27kua. 50 lagun junta ginan Juventud Gonzagan eta enpresia sortu genduan.

Ugezabak hortxe egoten ziran gure zain, zeintzuk ginan ikusteko.

Jesus:  
“Justizia sozialian  
sinisten genduan  
ori zerua zabaltzeko  
jakun”





### Zuek gazte eta lerdan sasoi haretan...

**V.:** Nik 25 bat urte nittuan. Jesus eta bixok biharrian oso pozik genden! Pena demasa hartu zebeu ugazabak, baina neuk be sentidu egin neban haura lagatzia!

**J.:** Orduan 23 urte, guretako zerua zabaltzia moduan izan zan kooperatibia. Gitxiago kobratze-  
ra jua ginan, baina pozik!

### Fabrikia nun kokatu argi zenken?

**V.:** Plaentxiarrak izanda produktua bertan egin nahi genduan. Baina azkenian Osintxun... Erabakitta zeguan makina erraminttia egingo zala.

**J.:** Junta bat osatu zan horrek danok lotzeko eta lan demasa egin zan. Lan haundixena J.L. Egureneg egin zeban, Soraluceko lelengo gerentia. Zorrotza zan gero! Behin esan zoztan ni bakarrik falta nintzala kapitalla ipintzeko, eta ez zebala holakorik aguantatuko. 100.000 pta bixamunian eruan eta hamar urtetara enteratu nintzan kapitalla ipintzen lelenu neu izan nintzala.

### Lelengo xoxekin ze egin zan?

**J.:** Lelengo "kaixolia" egin zan. Haundixegixa hasiera batean. Eta produktua ondo zeguan, baina ze markakin

egin ez genduan asmatu, esperientzia faltia edo. Modelo batzuk obsoletuak zeren, taladro radiala esaterako.

**V.:** Produktu barrixak merkatura zabaltzia lan galanta zan gero!

**J.:** Hasierako urtiak latzak zan ziran, ez genduan euki danondako lanik eta krisixa be tokatu zan...

Arrasatekuak be ondo portatu ziran, lana emon zozkuen eta lan ona, diru pixkat irabazteko emoten zebana.

### 70. hamarkadan hobetu ziran gauzak...

**J.:** Ordurako gure modelua genkan eta esportatzen hasi ginan. Alemania beti izan da oso merkatu ona. Gero amerikako batzuekin taladro radialak egitteko akordua sinatu genduan eta gure gamia hartu genduanian, Europa guztian eta Hego Ameriketan saltzen hasi ginan. Hor Soralucek despegatu egin zeban.

### Espero zenduen egungo mailara heltzerik?

**V.:** Ez neban espero, ez, oin mundu guztian dabiz. Irabazi ikeragarriak euki dittue, guk sekula ikusi ez genduzenak!

**J.:** Oinarri onak ipini genduzela uste dot.

**Victor:**  
"Irabazi ikeragarriak euki dittue, guk sekula ikusi ez genduzenak"

## Komertzializatutako produktuak

"Taladrua, "Schaublin" marka suitzarreko tornua, taladro multipliak, alesadorak, "Transfer" makina espezialak, mekanizatu zentrua, mandrinadorak, fresadorak, fabrikaziorako zelula flexibliak..."

"Gehixenak lizentziakin fabrikatu genduzen, mandrinadorak esaterako, eta radialen lizentzia saldu genduan Brasileran".

## 50. Urteurreneko ekitaldiak

**Apirilak 27:** Sortzaileen izenekin osatutako plaka erakusketaren inaugurazioa, "Etorkizunari erronka" eskulturaren aurkezpena eta bazkaria kiroldegian.

**Apirilak 28:** Ate irekiak Osintxun.

**Apirilak 29:** Hildako bazkideen omenezko meza.



Iraganeko eta gaur egungo lantokiaren irudiak. Iturria: Soraluce kooperatiba.



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Herriko pilotariak hirugarrenez lortu du eskuz-binakako txapelketako finalera iristea. Lehenengo bietan ihes egin badio ere, domeka honetan txapela buruan duela irten nahi luke Bizkaia pilotalekutik. Herritarren nahia ere, bide beretik doa.

## Jarraitu dozu eskuz-binakako txapelketia? Ze emaitza aurreikusten dozu?

MIREN URIBE



**E**z naiz oso pilota zalia eta ez ditudat partiduak jarraitu. Hala ta be, espero dot Laskurainek irabaztia! Emaitza bat botatziarren, 22-17 Laskurain eta Xalan alde.

ARRATE DE ALBIZ



**G**ustatu bai, baina ez dot segidu. Nahiko neuke Aritzek irabaztia, uste dot ondo jokatu dabela eta hirugarren aldi honetan irabaztia. Finaleko emaitza? 22-18 Laskurainen fabore.

GORKA PEREZ




**E**gixa esateko gitxi jarraitu dot txapelketia. Ezin neuke esan zeinek eruango daben txapela, ia Laskurainendako izaten dan! Kontra ez dotsat egingo eta 22-18 Aritz eta Xalan alde.

XABIER ARRIAGA



**E**z ditudat pelota partiduak ikusi, neri futbol la gehixago gustatzen jata eta... Dana dala, Aritzek irabaztia nahiko neuke, adibidez, 22-17 esango dot bere eta Xalan alde.

Eman zure iritzia sarean  .com

**Elizpe**  
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:  
- Ortodontzia ikustezina  
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETA  
FINANTZAKETA ZURE NEURRIA  
KONPROMISORIK GABEKO AURERAKONTUA

Tel. 943 75 25 67  
Elizburu 3 behe, Soraluze

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Errekalde 21 T. 943 75 00 06  
20590 SORALUZE T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea



**Jaia Irukurutzetan**

Eguraldiak laguntzen badu asko eta asko izango dira maiatzaren 6an Irukurutzeta Eguneko ospakizunera gerturatuko diren soraluzetar eta osintxuarrak. Goizeko 11:30ean salda eta txorizoa banatuko, trikitalariak ere izango dira eguna alaitzen. Euria bada Atsedeen-txaboletan hartu beharko dute aterpe bertaritzen direnek.

**Kultur ekitaldien agenda****Gaur, apirilak 27**

AFARI BEGETARIANOAK  
20:30etik aurrera Gaztetxean

Ant: Tripafesta taldea

**Apirilak 30, astelehena****HITZALDIA**

"Emakume preso ohien ezaugarritasuna eta autonomia" preso sozial eta EPPK kide ohiak izan diren emakumeekin.  
18:30ean Gaztetxean

Ant: Gaztetxea

**Maiatzaren 2tik 31ra**

INTERNET IKASTAROA  
KZgunean  
Orduetgia: 16:00etatik 20:00ra

Ant: Soraluzeko Udala

**Maiatzak 2, eguaztena**

DOKUMETALA eta SOLASALDIA  
"Gure lurra, gure etorkizuna"  
Maite Aristegiren eskutik.  
18:30ean, zinean

Ant: Bidetxior kontsumo taldea

**Maiatzak 5, zapatua**

ZAPATUETAKO AZOKA  
10:00etatik 13:00ra Kontzejupean

Ant: Bidetxior kontsumo taldea

**Maiatzak 8, martitzena**

HITZALDIA  
Bularreko minbiziaren prebentzioa  
18:30ean, zinean

Ant: Udaleko Gizarte-Ongizate Batzordea

# ZZ Blues Band taldeak lehen lana kaleratuko du

**B**lues, Funk eta R&B doinuak grabatu du Soraluzeko ZZ Blues Band taldeak. Inprobisazioari heldu eta 2011ko udan hasi ziren Joanes, Gaizka, Iosu eta Juan blues doinuak sortzeko abenturan. Orduanik Euskal Herriko hainbat agertokitan eskaini dute beraien musika. Lehen zuzeneko lana grabatu berri dute Txabi Labaienen laguntzaz. Zortzi abestik osatzen dute diskoa, euskara eta ingelesa erabiltzen dituzte horretarako eta, tartean, gustuko dituzten hainbat blues talderen moldaketa batzuk

ere eskaintzen dituzte. Lan berria datorren egunean jarriko dute salgai 8 eurotan eta erosi nahi duenak zzbbluesband@gmail.com helbidera idatzi beharko du.

Kantak entzuteko: myspace/zzbluesband



## Udaberria agurtzeko kontzertua

**M**usika eskolako ikasleek urtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten martxoaren 28an Frontoian eskainitako Udaberriko kontzertuan. Asko izan ziren irrika bereziz herriko haur eta gazteenen sorkuntzaz gozatzera hurbildu zirenak.

**Txistu doinuez herria dantzan**

Martxoaren 24an asko eta asko izan ziren eguraldia lagun txistu eta danbor donuen eritmorra dantza egin zuten herrietarrak. Kale dantza eguneko antolatzaile, txistulari eta dantzariak oso pozik agertu dira egunak izandako emaitzarekin eta udaberriaren etorrerarekin batera, urtero errepikatu nahiko luketela adierazi dute.



Iturria: Amaia Argarate



*Disceinua eta Sormena*

Poligono Amillaga, n° 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

**Altzairuen fabrikazioa:**

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak



## Laskurain: "Xala ondo ikusten dot eta joku ona emongo dau"



Soraluzeko pelotazaleek zita berezia dute domekan Bilboko Bizkaia aretoan. Xala eta Laskurainek final handiko txapela gogor borrokatuko dute Titin III eta Merino II bikotean kontra. Harmailetan 150 soraluzetar eseriko dira. Kontzentrazioa, emozioa eta lehia izango dira, besteak beste, Laskurainen hirugarren finalean.

### Finaletik bi egunera. Zela bizi ditzuzu azken orduak?

Momentuz trankil nago eta domekara arte holan jarraituko dotela uste dot. Ahal dan eta gehixen kontzentratu eta joku ona emoteko goguekin nago. Normalian nerbixuak agertzekotan domekan, kantxara urtetzeko momentuan, hortxe izaten da. Lasai egoten eta zentratzen ahalegintzia tokatzen da oin.

### Prentsa gainian, sarrera danak agortuta. Presiorik igarri dozu?

Prentsa atzetik ibiltzia normala da, finalak espektazino haundixa sortu dau eta. Domekatik aurrera lasaiago ibiliko garala pentsatzen dot eta egixa esan, badaukat gogua. Jendian aldetik presiorik ez dot igarri eta kaletik geratzen nabendane-tan animuak emoteko da. Eskerrak emotia besterik ez daukat.

### Final haundirako prestaketa berezirik?

Prestakuntza berezirik ez dogu egitten. Oin entrenatu ezker, nekatu, besterik ez. Lehenago landutakua mantentzia tokatzen da, hamabost egunetan ezin dozu ezer irabazi gainera. Entrenamendue-

tatik errekuperatu eta finalera ahalik eta freskuen heltzia komeni jaku. Azken pilotakadak egunian emon genduzen, pelota aukeraketa egunian eta horrekin listo.

### Zela pasatuko dittu Aritzek partidu aurreko orduak?

Goizian jaiki eta eguraldi oso txarra ez badago, mendi bueltia egingo dot, pasiaran lasaitu eta partiduan kontzentratzeko. Gero, amakin banoia frontoira, bere etxian bazkaldu dot.

### Zer espero dozu domekako norgehiagokaz?

Partidu gogorra izango da. Titinek eta Merinok maila emango dabe eta tanto bakoitza borrokatu egin biharko dogu. Xala ondo ikusten dot, azken entrenamenduetan ondo ibili da eta atzenengo partidua oso ondo bukatu zeban. Animoz behobeto dago eta holan jarraitzen badau, joku ona emongo dau.

### Txapela lortu ezker, zela ospatuko dau Aritzek?

Txapelik bare edo txapelakin Txurrukan afalduko dogu Lagunarteko lagunak eta gertuko jendiaz inguratuta.

### Eta txapela zeini eskainiko zontsake?

Ez dot pentsatu ezer txapelataz eta ez dotsat buelta askorik emon. Igual gure garaipenakin poztan dan jende guztixari.

### Txapelketiak emon dotsun poztasunik haundixena zein?

Finalian sartzia. Zaila zeguan, faborito garbixenak bestiak ziran eta guk pasia lortzia izugarria izan zan. Finalaurdenetara presiño gehixagokin sartu ginan eta haura izan zan objetibua lortzia. Finala extra bat da.

### Porria egittera ausartzen zara?

22-15 esan dot nik. Erraza da esatia baina eta nahiz eta 22-21 irabazi, ongi etorria izango da txapela!

## EMAITZAK

### PELOTA

Xala – Laskurain	22
Olaizola II – Beroiz	18

### FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Zumaiako	1-0
Aretxabaleta "B" – Sora (Erreg.)	1-2
Sora (Erreg.) – Zestoa "B"	4-3
Gazteak – Sora (Erreg.)	4-6
Hernani "B" – Sora (Jub.)	4-1
Sora (Jub.) – Burumendi	0-3
Sora (Kad.) – Arrasate	2-1
Eibartarrak – Sora (Kad.)	8-0
Beasaingo – Sora (BHI mutilak)	8-3
Urki – Sora (BHI neskek)	9-0
Sora (BHI neskek) – Bergara K.E.	1-2

## AGENDA

### PELOTA

#### ESKUZ BINAKAKO FINALA Domeka 29, 17:00etan Bilboko Bizkaian (etb1)

Xala – Laskurain  
Titin III – Merino II

#### Asier eta Iñakiren omenezko txapelketa

Izena emateko azken eguna: maiatzak 1. Arrano, Gaztelupe edo Gaztetxean.

Bikoteen zozketa: Maiatzak 3, 20:00etan Gaztetxean.

### FUTBOLA

**Zapatua 28, 16:30ean Legazpin**  
Ilintxa S.D – Sora (Erreg. Pref.)  
**Ohorezko maila lehian. Partidu erabakigarria, denok Legazpira Sora animatzera!!**

**Zapatua 28, 17:00etan Ezozin**  
Sora (Erreg.) – Eibartarrak "B"

**Zapatua 28, 12:00etan Ondartzan**  
Hondarribia "B" – Sora (Jub.)

**Zapatua 28, 16:30ean Ezozin**  
Sora (Kad.) – Aretxabaleta "B"

**Zapatua 28, 10:00etan Ezozin**  
Sora (BHI mutilak) – Santa Teresa IK

**Zapatua 28, 10:00etan Ezozin**  
Sora (BHI neskek) – Zumaiako F.T.

### MENDI IRTEERAK

**Noiz:** Apirilak 29, domeka

**Nora:** Arlabanetik Eskoriatzara

**Irteera:** 9:00etan Estazio kaletik

### HIRU TXIRLO

#### BOLO TXAPELKETA

Maiatzak 12, Ezozin.



"Finale-  
ra ahalik eta  
freskuen  
juango  
gara"

# ZORION AGURRAK



**Urko Ruiz**  
Apirilan 15ian 8 urte!  
Zorionak txapeldun!  
Muxu pila Izer eta etxekuen partez!



**June Hernandez Muro**  
Apirilan 4an 7urte!  
Zorionak polittori eta muxu haundi bat maitte zaittugun guztion partetik, bereziki Iratin partez!



**Zorionak Galder!**  
Apirilan 13an 8 urte  
Aupa Txapeldun!  
Gurdikada bat patxo eta jator-jator jarraitu!



**Zorionak Maddalen!**  
Maiatzan 1ian 11 urte  
Aupa Txapeldun!  
Gurdikada bat patxo eta jator-jator jarraitu!



**Zorionak sorgintxo!**  
Apirilan 12xan 3 urte!  
Txokolatezko muxu pila pila etxeko danon partetik, bereziki Ilargin partez!



**Iker Bedaio**  
Apirilan 18xan 8 urte!  
Zelako mutil hundixa egin zaran! Zorionak eta muxu asko etxeko danon partez!



**Irati Oregi**  
Apirilan 10ian jaixua!  
Ongi etorri ttiki!  
Kolorez eta pozez betetzen gaituzuelako, patxo potolo bat etxeko danon partez!



**Beñat Urrestarazu**  
Apirilan 22xan hiru urte!  
Zorionak etxekuen partez.



**Uxue Urrestarazu**  
Maiatzan 7xan bi urte!  
Zorionak etxekuen partez.




**Ekain Larrañaga**  
Apirilan 21ian 8 urte!  
Zorionak mutilhaundi!  
Patxo potolo askoo, danon partez!



**Maitane Iñurrieta eta Javier Galarraga**  
Apirilan 11n 26 eta 83 urte!  
Zorionak eta patxo haundi bat etxekuen partez!



**Arkaitz Larrañaga** Apirilan 20xan 39 urte!  
**Maddi Mañora** Apirilan 22xan 6 urte!  
Zorionak eta patxo bana familixa guztixan partez.



**Ander Sanchez** Apirilan 25ian 5 urte!  
**Montse Martinez** Apirilan 18xan 31 urte!  
Muxu ikaragarri pila, etxeko danon partez!



**Zorionak Sabin!**  
Eutsi gogor!  
Besarkada eta patxo asko asko!

## jaiotakoak

IRATI OREGI MAYO  
OIER BAKERO AGIRRE



## hildakoak

MOISES MAIZTEGI GARATE  
JUANA OREGI ARAMENDI  
NATIVIDAD ARANBERRI LASKURAIN  
DAMIAN BENGEOA ELORZA  
JOSE ANTONIO HERNANDO GORDO



## LEHIAKETA

- **Zein ageri da argazki honetan?**
- **Saria:** Laskurainek sinatutako kamiseta.



## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea: Itziar Gantxegi**
- **Tere Guenetxea**, herriko artisaua da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da. Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Soraluce Kooperatiba

## SORALUCE FABRIKAKO LEHENENGO HARRIXA

**A**urten mende erdi beteko dau Soraluce-ko izena daroian kooperatibiak. Erretratu hau 1962ko apirilaren 29xan jasota dago, bazkide sortzailiak lehenengo harrixa jartzia erabaki zeben egunian.

### Hona sortzaileen izenak:

Jose Atxa	Jose M <sup>a</sup> Argarate	Juan Antonio Garitano	Daniel Mugika
Fernando Agirre	Moises Arizaga	Juan Garmendia	Jesus Orbea
Jose Ramón Aizpiri	Jose Luis Ariznabarreta	Jesús M <sup>a</sup> Gómez	Leoncio Oregi
Juan Ignacio Alberdi	Lorenzo Ariznabarreta	Gonzalo Gorostidi	Domingo Oruesagasti
Julio Alberdi	Jesus Artolazabal	Luis M <sup>a</sup> Heriz	Pedro Oruesagasti
Jesus Agustin Alberdi	José Aseginolaza	Tomas Ibargutxi	Ignacio Osa
Luis M <sup>a</sup> Alkorta	Jose Luis Aspe	Nestor Iriondo	Pedro Osa
Gonzalo Akizu	Jaime Azkona	Victor Iriondo	Antonio Peñalba
Jesus M <sup>a</sup> Akizu	Marino Azkona	Juan Martin Izagirre	Gabino Sanz
Julian Arana	Ramon Barrenetxea	Juan Lete	Jose Luis Sanz
Bonifacio Aranzabal	Isidro Bergaretxea	Emilio Leturiondo	Elias Vidal
Cecilio Arcelus	Jose Luis Eguren	Domingo Manzanedo	Jesus M <sup>a</sup> Zabala
Juan M <sup>a</sup> Areitioaurtena	Jose Ignacio Galarraga	Juan Mendia	Sergio Zabala



### NATI ARANBERRI LASKURAIN

2012KO APIRILAREN 3AN HIL ZEN  
96 URTE ZITUELA

Elkarrekin edozerri aurre egiteko gai gara  
ikasi dugu zure ondoan.

Orain badakigu elkartu gaituen sua  
ez dela inoiz itzaliko.

Maite zaitugu, ama!  
Maite zaitugu, amama!

Etxekoak



# SORALUCE



## 50 años gracias a ti

Medio siglo después, el esfuerzo de los fundadores y continuadores de este proyecto ha convertido a SORALUCE en éxito globalizado.

Hoy la marca SORALUCE está presente en los cinco continentes y es un referente mundial en fresado-mandrinado.

## 50 urte zuri esker

Mende erdi geroago, proiektu honen sortzaileen eta jarraipena eman diotenen ahaleginari esker, SORALUCE arrakasta globalizatu bihurtu da.

Gaur egun SORALUCE marka munduko bost kontinenteetan dago eta fresaketa-mandrinaketan mundu mailako erreferentea da.

**DANOBATGROUP**

**SORALUCE**

Osintxu auzoa  
P.O. Box 90  
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa) Spain

Tel.: +34 943 76 90 76

Fax: +34 943 76 51 28

soraluce@soraluce.com

www.danobatgroup.com



**NORA  
BEGIRA  
ZAUDE?**



**ERRENTA  
AITORPENA  
AUKERAN EUSKARAZ!**

Badakizu Errenta aitorpena euskaraz egiteko aukera duzula?  
Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du ba?  
Euskaraz, zeure aukera da!



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Kultura eta Euskara Departamentua  
Departamento de Cultura y Euskera